

2026

AURREKONTU OROKORRAK

PRESUPUESTOS GENERALES

03 Ekonomia, Lana eta Enplegua Economía, Trabajo y Empleo

Eustat

Osalan

Lanbide



2026

AURREKONTU OROKORRAK

PRESUPUESTOS GENERALES



Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2026ko urtarrila / 1a, enero 2026

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ogasun eta Finantza Saila / Departamento Hacienda y Finanzas

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

03-EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA

03-ECONOMIA, TRABAJO Y EMPLEO	6
Sekzioaren eta programen memoriak	
<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	7
Gastuen egoera-orria	
<i>El Estado de Gastos</i>	67
3110 Ekonomia, Lana eta Enplegua. Egitura eta Laguntza	
<i>Economía, Trabajo y Empleo. Estructura y Apoyo</i>	68
3112 Lana	
<i>Trabajo</i>	73
3121 Gizarteratzea	
<i>Inclusión Social</i>	77
3211 Enplegua	
<i>Empleo</i>	80
3212 Gizarte Ekonomia	
<i>Economía Social</i>	83
3231 Prestakuntza	
<i>Formación</i>	85
5511 Estatistika	
<i>Estadística</i>	86
6116 Ekonomia eta Plangintza	
<i>Economía y Planificación</i>	87
Sarrerren egoera-orria	
<i>El Estado de Ingresos</i>	90
3110 Ekonomia, Lana eta Enplegua. Egitura eta Laguntza	
<i>Economía, Trabajo y Empleo. Estructura y Apoyo</i>	91
3112 Lana	
<i>Trabajo</i>	92
3212 Gizarte Ekonomia	
<i>Economía Social</i>	93
Gastuen laburpenak	
<i>Resúmenes de Gastos</i>	94
Sarrerren laburpenak	
<i>Resúmenes de Ingresos</i>	101
ORGANISMO AUTONOMOAK	
ORGANISMOS AUTÓNOMOS	103
OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	
<i>OSALAN. Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales</i>	104
EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundea	
<i>EUSTAT-Instituto Vasco de Estadística</i>	151
ENTE, SOZIJETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK	
ENTES, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS	187
41 LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa	
<i>LANBIDE Servicio Público Vasco de Empleo</i>	188
Lanbide. Atalak	
<i>Lanbide. Secciones</i>	238

4101	Zuzendaritza nagusia	
	<i>Dirección General</i>	239
4102	Koordinazioa eta komunikazioa	
	<i>Coordinación y Comunicación</i>	250
4103	Administrazioa eta Zerbitzu Orokorrak	
	<i>Administración y Servicios Generales</i>	260
4104	Prestazioak	
	<i>Prestaciones</i>	273
4105	Enplegua eta Prestakuntza	
	<i>Empleo y Formación</i>	282
4106	Enpresak eta Ekintzailtza	
	<i>Empresas y Emprendimiento</i>	295

03-EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA
03-ECONOMIA, TRABAJO Y EMPLEO

Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas



EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA

ECONOMIA, TRABAJO Y EMPLEO

SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 7. artikulua ezartzen ditu Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari dagozkion egitekoak eta jardun-arloak. Baita 36/2024 Dekretua ere, uztailaren 30ekoa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailak aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena.

Esleipen funtzional eta antolamenduzko horretan oinarrituta, Sailari laguntzeko hiru zuzendaritza horizontal bereizten dira: Zerbitzuak, Kabinetea eta Komunikazioa, eta hiru jardun-arlo handi: Ekonomia, Lana eta Gizarte Segurantzak, eta Enplegua eta Gizarteratzea. Horiek guztiak bat datoz sailburuordetzen egitura organikoarekin, eta hazkunde ekonomikoari eusteko eta bultzatzeko, herritarren oinarritzko premiei erantzuteko eta enplegu eta lan-baldintza duinak sortzen laguntzeko jarduerak sustatzen dituzte. Halaber, Sailari atxikitzen zaizkio OSALAN, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea eta EUSTAT, Euskal Estatistika Zerbitzua erakunde autonomoak eta LANBIDE, Euskal Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoa.

Horrela, egitura horrek oinarritzko hiru gai biltzen ditu herritar guztientzat: Euskadiko egoera ekonomikoaren azterketa, hazkunderako eta lan duinerako politikak sustatzeko, pertsonen garapen osoa ahalbidetzeko, arreta berezia jarritz Lan Osasunean eta Berdintasunean, zeharkako jardura gisa; eta enplegu-politika integralak, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Sistema batekin, gizarte-politikak aintzat hartuko dituena eta helburu nagusizat pertsonak gizarteratzea eta laneratzea izango duena.

Ekonomia Sailburuordetzari dagozkio Gobernuaren politika ekonomikoaren planifikatzea, Europako suspertze- eta erresilientzia-funtsak planifikatzea eta kudeatzea, eta ikerketa ekonomiko eta estatistika egitea. Haren mende daude Ekonomia Zuzendaritza eta Plangintza eta Egiturazkoak ez diren Funtsen Zuzendaritza. EUSTAT Euskal Estatistika Erakundea arlo horren mende dago.

INTRODUCCIÓN

La atribución de funciones y áreas de actuación que le corresponden al Departamento de Economía, Trabajo y Empleo viene establecida por el artículo 7 del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos. También el Decreto 36/2024, de 30 de julio, del Lehendakari, de modificación de los departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Sobre la base de dicha atribución funcional y organizativa se distinguen tres Direcciones horizontales de apoyo y asistencia al Departamento, como son Servicios, Gabinete y Comunicación, y tres grandes áreas de actuación: Economía, Trabajo y Seguridad Social y Empleo e Inclusión, las cuales son coincidentes con la configuración orgánica a nivel de las Viceconsejerías, que promueven actuaciones destinadas a sostener e impulsar el crecimiento económico, atender necesidades básicas de la ciudadanía y favorecer la creación de empleo y condiciones de trabajo dignas. Asimismo, se adscriben al Departamento los organismos autónomos OSALAN, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales y EUSTAT, Servicio Vasco de Estadística, y el ente público de derecho privado LANBIDE, Servicio Público Vasco de Empleo.

Esta estructura aglutina así tres materias básicas para el conjunto de la ciudadanía; análisis de la situación económica en Euskadi de cara a fomentar políticas para el crecimiento, trabajo digno que permita el desarrollo de las personas en toda su extensión con especial atención a la Salud Laboral y la Igualdad como actuación transversal, y las políticas de empleo también integrales con un Sistema de Garantía de Ingresos e Inclusión que atienda políticas sociales y que tengan como objetivo principal la inclusión sociolaboral de las personas.

A la Viceconsejería de Economía le corresponde la planificación de la política económica del Gobierno, la planificación y gestión de Fondos europeos de recuperación y resiliencia (MRR), la Investigación económica y la Estadística. Dependen de ella las Direcciones de Economía y la de Planificación y Fondos no Estructurales. De esta área depende el Instituto Vasco de Estadística EUSTAT.

Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetza lan-harremanen eta gizarte-ekonomiaren arloko lan-arloko legeria betearazteaz (kooperatibak, lan-sozietate anonimoak eta ekonomia solidarioa), enpresen gizarte-erantzukizunaz eta Gizarte Segurantzaz arduratzen da, Autonomia Estatutuan aurreikusitako baldintzetan, bai eta emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murrizten jarraitzeko sentsibilizazioaz ere.

Gai horiei gehitu behar zaizkie ekainaren 17ko 511/2025 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako etorkinentzako hasierako lan-baimenei dagozkienak. Errege dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio norberaren edo besteren konturako lanaren hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak, lan-harremana Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen duten atzeritarrei dagokenez.

Organikoki sailburuordetza horren mende daude Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza eta Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza, eta haren mende daude Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskaritzaren Zuzendariordetza eta Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza.

Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzari dagokio enplegu-politikari eta laneko prestakuntzari buruzko eskumenak baliatzea, hargatik eragotzi gabe Hezkuntza Sailak Lanbide Heziketaren arloan esleitura dituen zuzendaritza-, antolamendu- eta plangintza-eginkizunak, bai eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Sistema ere.

Enplegu Zuzendaritza eta Inkusio Zuzendaritza sailburuordetza horren mende daude.

Sailaren egitura zuzen-zuzenean Bigarren Lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuaren mende dauden organoei amaitzen da: Zerbitzu Zuzendaritza, Saileko gainerako organoei laguntzeko organoa den aldetik bertako arlo guztietan; Kabinete Zuzendaritza, bere karguaren arabera esleitura dituen eginkizunak betetzeko zuzeneko laguntza-organoa den aldetik, bereziki sailburuaren lan-programaren plangintza, jarraipena, koordinazioa eta laguntza; Komunikazio Zuzendaritza, hari baitagokio Sailaren ekintzei buruzko informazio-harremanak zuzentzea eta informazioa zabaltzea; eta, azkenik, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen bidez sortu zen Besaldi-Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari egiteko hauek dagozkio, bestek beste:

- a. Jaurlaritzaren politika ekonomikoa planifikatzea.
- b. Europako suspertze- eta erresilientzia-funtzen plangintza eta kudeaketa. Ikerketa ekonomikoa. Azterlan eta metodo ekonomikoak. Ekonomiaren kointuntura eta aurreikuspena.
- c. Estatistika.

La Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social se ocupa de la ejecución de la legislación laboral en materia de relaciones laborales y de la economía social: cooperativas, sociedades anónimas laborales y economía solidaria; de la responsabilidad social empresarial y de la Seguridad Social en los términos previstos en el Estatuto de Autonomía, así como de la sensibilización para seguir recortando la brecha salarial entre mujeres y hombres.

A estas materias se le une las referidas a las autorizaciones iniciales de trabajo para personas emigrantes transferidas a la Comunidad Autónoma Vasca por el Real Decreto 511/2025, de 17 de junio, de traspaso de funciones y servicios a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de ejecución de la legislación laboral del Estado sobre autorizaciones iniciales de trabajo por cuenta propia o ajena de las personas extranjeras cuya relación laboral se desarrolle en el País Vasco.

Dependen orgánicamente de esta Viceconsejería la Dirección de Trabajo y Seguridad Social, de la que a su vez depende la Subdirección de la Inspección de Trabajo del País Vasco y la Dirección de Economía Social.

A la Viceconsejería de Empleo e Inclusión le corresponde el ejercicio de las competencias referidas a la política de empleo, a la formación en el trabajo, sin perjuicio de las funciones de dirección, ordenación y planificación en el ámbito de la Formación Profesional que tiene atribuidas el Departamento de Educación, así como el Sistema de Garantía de Ingresos e Inclusión Social.

Dependen de esta Viceconsejería la Dirección de Empleo y la Dirección de Inclusión.

La estructura departamental culmina con los órganos que se sitúan bajo la dependencia directa del Vicelehendakari Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo: la Dirección de Servicios, como órgano de apoyo a los restantes órganos del Departamento en materias de naturaleza común a las diversas áreas del mismo; la Dirección de Gabinete, como órgano de asistencia directa para el ejercicio de las funciones que tiene encomendadas en virtud de su cargo, singularmente de planificación, seguimiento, coordinación y apoyo del programa de trabajo del Consejero; la Dirección de Comunicación, a quien corresponde la dirección de las relaciones informativas y la difusión de la información de las acciones del Departamento y, por último, el Órgano de Evaluación, Investigación e Innovación en materia de Inclusión-Besaldi, que se creó por la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión.

Al Departamento de Economía, Trabajo y Empleo le corresponden entre otras las siguientes funciones:

- a. Planificación de la política económica del Gobierno.
- b. Planificación y gestión de Fondos europeos de recuperación y resiliencia (MRR). Investigación económica. Estudios y métodos económicos. Coyuntura y previsión económica.
- c. Estadística.

d. Enplegu-politika eta enplegurako lanbide-heziketa, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoarekin, bere erantzukizunen barruan.

e. Lan-harremanen arloko lan-arloko legeria betearaztea.

f. Gizarte-ekonomia: kooperatibak, lan-sozietate anonimoak eta ekonomia solidarioa.

g. Enpresaren gizarte-erantzukizuna.

h. Gizarte Segurantzza, Autonomia Estatutuan aurreikusitako baldintzetan.

i. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Sistema.

j. Sailari atxikita dauden edo haren mende dauden sektore publikoko erakundeak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.

k. Legeek eta erregelamenduek eman diezazkieten gainerako ahalmenak.

Esleipen funtzional horretan oinarrituta, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila sail estrategiko gisa eratzen da, Jaurlaritzarentzat saihestezinak diren helburu batzuk lortzeko.

a) Euskadin hazkundea sortuko duen ekonomia bultzatzea eta sendotzea, baina baita aberastasuna birbanatzea, gizarte-kohesioa eta herritarrei bizi-kalitate handiagoa ematea ere. Eta hori guztia neurri ekonomiko berritzaileak, jasagarriak eta inklusiboak abian jarritz, gure produkzio-sarea lehiakortasunari dagokionez modernizatzeko eta ahaleginak prestakuntzara, I+G+Bra eta nazioartekotzera bideratzeko.

b) Legegintzaldiaren amaieran enplegu beteak lortzea, 2028an langabezia-tasa % 5etik beherakoa izatea (langabezia teknikoa).

c) Kalitatezko lan-merkatua finkatzea, eskubideak dituen, inklusiboa eta berdintasunezkoa. Helburua ez da emaitza kuantitatibo hutsak lortzea, kualitatiboak ere bai: osasun- eta segurtasun-baldintzetan garatuko den enplegu baten alde, langileen bizi-proiektuak erabat garatzea ahalbidetuko duen enplegu baten alde, azken batean, enplegu duin eta kalitatezko baten alde.

d) Kolektibo kalteberenei arreta ematea, bai laneratzeko eta gizarteratzeko formulei dagokionez, bai diru-sarrerak bermatzeko errentaren ereduak eskaintzen duen babesari eta haren eguneratzeari eta modernizazioari dagokionez.

Horretarako, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak ibilbide-orri bat ezarri du kalitatezko enplegua bultzatzeko, hazkunde ekonomikoari laguntzeko eta, besteak beste, honako jarduera-ardatz hauetan oinarritzen diren pertsona guztiak babesteko:

d. Política de empleo, así como la formación profesional para el empleo, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente, con la colaboración, desde sus responsabilidades, del ente público de derecho privado Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo.

e. Ejecución de la legislación laboral en materia de relaciones laborales.

f. Economía social: cooperativas, sociedades anónimas laborales y economía solidaria.

g. Responsabilidad social empresarial.

h. Seguridad Social en los términos previstos en el Estatuto de Autonomía.

i. Sistema de Garantía de Ingresos e Inclusión Social.

j. Dirigir, de acuerdo con las leyes y los reglamentos, las entidades del sector público adscritas o dependientes del Departamento.

k. Las demás facultades que le atribuyan las leyes y los reglamentos.

Sobre la base de dicha atribución funcional, el Departamento de Economía, Trabajo y Empleo se configura como un Departamento estratégico para el logro de unos objetivos ineludibles para este Gobierno.

a) Impulso y consolidación de una Economía en Euskadi que genere crecimiento pero también redistribución de la riqueza, cohesión social y más calidad de vida para los ciudadanos y ciudadanas. Y ello a través de la puesta en marcha de medidas económicas innovadoras, sostenibles e inclusivas, por la modernización de nuestro tejido productivo en términos de competitividad y por dirigir los esfuerzos hacia la formación, la I+D+i y la internacionalización.

b) Conseguir al final de la legislatura el pleno empleo, que en 2028 la tasa de paro sea inferior al 5% (paro técnico).

c) Consolidar un mercado de trabajo de calidad, con derechos, inclusivo e igualitario. El objetivo no es conseguir resultados meramente cuantitativos, sino también cualitativos: por un empleo que se desarrolle en condiciones de salud y seguridad, un empleo que posibilite el desarrollo pleno de los proyectos vitales de los trabajadores, en definitiva, un empleo digno y de calidad.

d) Atención a los colectivos más vulnerables tanto en las fórmulas de inclusión laboral y social como por la protección que ofrece el modelo de renta de garantía de ingresos y su actualización y modernización.

Para ello, el Departamento de Economía, Trabajo y Empleo se fija una hoja de ruta para favorecer el empleo de calidad, coadyuvar al crecimiento económico y proteger a todas las personas que se sustenta, entre otros, en los siguientes ejes de actuación:

a) Ekonomia-plangintza bat, zifra ekonomiko handiak herritarren eguneroko ekonomiara hurbilduko dituen. Ekonomia enpresei, ekintzaileei eta langileei hurbildu nahi diegu. Garrantzitsua da plangintza ekonomikoa, makroekonomia, eragile horien eguneroko lanarekin estuki lotuta egotea. Sail honi ekonomiaren arloko eskumenak batzea, hain zuzen ere, zenbaki handiak errealtate txikietara itsastea da, zifra handiak enpresa txiki eta ertainen, saltokien, etxeen eta bizi-proiektuen egunerokotasunean islatzen diren moduan hobeto islatzea.

b) Next Generation funtsak arintzea eta optimizatzea. Sailaren helburua, gure koordinazio-funtzioaren barruan, jarraipen- eta ebaluazio-lana egiten jarraitzea da, bai eta sail eskudunei laguntzea ere, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren Funtsak ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

c) Enpleguaren Legea hedatzea. Arau hori onartuta, politika aktiboetarako sarbidea eskubide subjektibo bihurtu da, lan bila dabilzan pertsona guztiek lan-orientazioa eta enplegu-plan indibidualizatua lortzeko aukera izan dezaten. Arau hau bere potentzialtasun osoan garatuko dugu eskubide hori gauzatzeko.

d) Berrikuntza. Tresna berri bat dugu, Besaldi, Inklusiorako Politika Publikoak Ebaluatzeko Organoa. Haren lanari esker, hobekuntzak ezarri ahal izango ditugu gure jarduera-eremu guztietan, laneko orientazioaren eta bitartekaritzaren eremuan aplikatutako ikerketa-, diseinu- eta berrikuntza-programen bidez.

e) Berdintasuna, gizonen eta emakumeen artean. Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren jardun guztiak gidatzen dituen muineko gaia da. Berdintasun hori zeharkako helburua da lan-merkatuan, eta sail honetan funtsezko bi gaitan gauzatzen da, erabat lotuta daudenak: berdintasun-planak eta soldata-arrakalaren aurkako borroka.

f) Arreta berezia emango zaie gazteei eta 45 urtetik gorakoei, eta, bereziki, 55 urtetik gorakoei, kalitatezko enplegua lortzeko.

g) Elkarriketa soziala eta enplegu-politika publikoak adostea. Arreta berezia jarri zaio Elkarriketa Sozialaren Mahaiari. Mahai hori oinarritzko tresna bihurtu da politika publikoak diseinatu eta abian jartzeko, bereziki enplegu-politikak, eta horren bidez lan-munduan dauden solaskide nagusien adostasuna eta parte-hartze demokratikoa sustatzen dira.

h) Lan-osasuna. Laneko ezbeharren aurkako borroka.

i) Laneko Ikuskaritza indartzea lan-arloko araudia betetzen dela zaintzeko eta kontrolatzeko.

a) Una planificación económica que acerque las grandes cifras económicas a la Economía cotidiana de la ciudadanía. Queremos acercar la Economía a las empresas, a los emprendedores, a los trabajadores y las trabajadoras. Es importante que la planificación económica, la macroeconomía, estén íntimamente ligadas al trabajo diario de estos agentes. Sumar las competencias en materia económica a este departamento es precisamente pegar los grandes números a las pequeñas realidades, traducir mejor las grandes cifras a cómo se reflejan en el día a día de pymes, comercios, hogares y proyectos de vida.

b) Agilización y optimización de los Fondos Next Generation. El objetivo del Departamento es, dentro de nuestra función de coordinación, seguir realizando la labor de seguimiento y evaluación, y asistir a los departamentos competentes para lograr el máximo aprovechamiento de los Fondos del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia.

c) Despliegue de la Ley de Empleo. Con la aprobación de esta norma, el acceso a las políticas activas se ha convertido en un derecho subjetivo, de forma que todas las personas que buscan un trabajo tengan la posibilidad de acceder a una orientación laboral y a un plan individualizado de empleo. Desarrollaremos en toda su potencialidad esta norma para hacer efectivo ese derecho.

d) Innovación. Contamos con un nuevo instrumento, el Órgano de Evaluación de Políticas Públicas de Inclusión-Besaldi, cuyo trabajo nos permitirá implantar mejoras en todas y cada una de nuestras áreas de actuación a través de programas de investigación, diseño e innovación aplicada en el ámbito de la orientación e intermediación laboral.

e) Igualdad, entre hombres y mujeres. Es una cuestión medular que guía todas las actuaciones de este Departamento de Economía, Trabajo y Empleo. Una igualdad que es un objetivo transversal en el mercado de trabajo y que en este departamento se materializa en dos cuestiones fundamentales que están radicalmente conectadas: los planes de igualdad y la lucha contra la brecha salarial

f) Especial atención a jóvenes y mayores de 45 años, y específicamente a mayores de 55 para acceder a un empleo de calidad.

g) Diálogo Social y concertación de las políticas públicas de empleo. Especial atención a la Mesa de Diálogo Social, que se ha consolidado como un instrumento básico en el diseño y puesta en marcha de políticas públicas, especialmente políticas de empleo, y a través de la cual se promueve el consenso y la participación democrática de los principales interlocutores presentes en el mundo del trabajo.

h) Salud laboral. Lucha contra la siniestralidad laboral.

i) Refuerzo de la Inspección Laboral, para la vigilancia y control del cumplimiento normativo en materia laboral.

j) Euskal Enplegu Sistema Publikoaren eraldaketan aurrera egitea, Lanbide tresna baliagarria izan dadin langileak, aktiboak zein landunak, prestatzeko. Lanbide Hobetzen programa finkatzea.

Ardatz horietan oinarritzen dira Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren jardunak, kalitatezko enplegua, baldintza duinak eta segurtasunekoak sortzen laguntzeko. Horrez gain, gizarte-babeseko sistema indartzeko eta oparotasuna izan behar duen hazkunde-sistema ekonomikoa finkatzeko erronka dago.

ZERBITZU ZUZENDARITZA

Zerbitzu Zuzendaritzan sartzen dira aurrekontua egin eta kudeatzearekin lotutako jarduerak, langileen administrazioa eta kudeaketa, sailean emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak, administrazio-kontratazioa, informatika, hizkuntza-normalizazioa eta sail osoari laguntza orokorra emateko beste jarduerak batzuk, barne-funtzionamenduko hainbat jarduera koordinatuz. Halaber, Gobernu Kontseiluari eta Gobernu Batzordeei aurkeztu behar zaizkien Sailaren gaiak izapidetzen ditu.

KABINETE ZUZENDARITZA

Kabinetearen Zuzendaritza arduratzen da Sailaren programaren plangintzaz eta jarraipenaz, haren kanpo-jardueraz eta Sailak sustatutako ekitaldi publiko eta ofizialez.

Zuzendaritza honek bere gain hartzen ditu Sailaren eta Eusko Legebiltzarren arteko harremanak, eta erantzuna ematen die Legebiltzarreko ekimenei, idatziz erantzuteko galderei, dokumentazio-eskaerei, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko galderei, Batzordearen eskariz egindako agerraldiak, interpelazioak eta Batzordean ahoz erantzuteko galderei.

Kabinetearen Zuzendaritzaren lanaren beste alderdi bat da beste erakunde publiko batzuetatik (Arartekoa, esaterako) datozen kontsultei sailerako zuzendaritzek emandako erantzun dokumentatuak bideratzea.

KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA

Komunikazio Zuzendaritza arduratzen da sailaren komunikazio-politika zehazteaz, zuzentzeaz eta koordinatzeaz, sailaren jarduerak, erabakiak eta politikak behar bezala zabaltzen direla bermatzeko, bai informazio- eta prentsa-kanalen bidez, bai publizitate-kanalen bidez. Beste erantzukizun bat OSALAN, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea eta EUSTAT-Euskal Estatistika Zerbitzua erakunde autonomoak eta LANBIDE, Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoarekiko komunikazioa koordinatzea da.

Era berean, Sailari esleitutako webgunea eta sare sozialak zein lekia ataria mantentzea eta horiek eguneratzea dagokio, herritarrei informazioa eta arreta emateko zerbitzuei erantzutea «Zuzenean», bere eskumeneko arloetan solaskide eraginkorrak daudela ziurtatuz, eta informazioa eskuratzeko eskaerak ebaztea.

j) Avanzar en la transformación del Sistema Público Vasco de Empleo que haga de Lanbide un instrumento útil para la formación de las personas trabajadoras, sean activas u ocupadas. Consolidación del programa lanbide Hobetzen.

Estos son los ejes sobre los que pivotan las actuaciones del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo para favorecer la creación de empleo, de un empleo de calidad, en condiciones dignas y de seguridad, a lo que se suma el reto de reforzar el sistema de protección social y el de consolidar un sistema económico de crecimiento que debe ser el de la prosperidad.

DIRECCIÓN DE SERVICIOS

En la Dirección de Servicios se incluyen las actividades relacionadas con la elaboración y gestión del presupuesto, administración y gestión del personal, impulsa las políticas de igualdad de mujeres y hombres en el departamento, contratación administrativa, informática, normalización lingüística y otras actividades de apoyo general al conjunto del Departamento, coordinando igualmente distintas actuaciones de funcionamiento interno. Asimismo tramita los asuntos del Departamento que hayan de ser sometidos al Consejo de Gobierno y a las Comisiones del Gobierno.

DIRECCIÓN DEL GABINETE

La Dirección de Gabinete se ocupa de la planificación y seguimiento del programa del Departamento, actividades externas del mismo y actos públicos y oficiales promovidos por este.

Esta Dirección asume las relaciones del Departamento con el Parlamento Vasco, dándose respuesta a las iniciativas parlamentarias, preguntas para respuesta por escrito, solicitudes de documentación, preguntas para respuesta oral en Pleno, comparecencias a petición de la Comisión, interpelaciones y preguntas para su respuesta oral en Comisión.

Otra faceta del trabajo de la Dirección de Gabinete es la canalización de las respuestas documentadas de las Direcciones departamentales a las consultas provenientes de otras instituciones públicas, como el Ararteko.

DIRECCIÓN DE COMUNICACIÓN

La Dirección de Comunicación se ocupa de definir, dirigir y coordinar la política de comunicación departamental para garantizar una correcta difusión y divulgación de las actividades, decisiones y políticas del Departamento, tanto a través de los canales de información y prensa como de los publicitarios. Otra de sus responsabilidades es la coordinación de la comunicación con los organismos autónomos OSALAN, Instituto Vasco de Salud Laboral, y EUSTAT, Servicio Vasco de Estadística y el ente público de derecho privado «LANBIDE, Servicio Público Vasco de Empleo».

De igual manera, le corresponde el mantenimiento y actualización tanto de la web y redes sociales asignados al Departamento y en el portal Irekia, atender los servicios de información y atención a la ciudadanía «Zuzenean» asegurando la existencia de interlocutores operativos en las diferentes materias de su ámbito competencial, y resolver las solicitudes de acceso a la información.

Zuzendaritza honek ere egiten du Sailaren urteko argitalpen-programa, Argitalpen Zerbitzu Nagusiarekin lankidetzan.

ENPLEGU ETA GIZARTERATZE POLITIKAK EBALUATZEKO ORGANOAK

Enplegu eta Gizarteratze Politikak Ebaluatzeiko Organoak (Besaldi) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko lehen ebaluazioa eta bi urtean behingo txosten orokorra egingo ditu, bai eta interesdun orori irekitako topaketen bigarren zikloa ere. Bere sustapen-lana Euskal Herriko Unibertsitate eta Eguía Careaga Fundaziora bideratzen da, enplegu- eta gizarteratze-politiken ebaluazioarekin lotutako jakintza eraikitze proiektuetarako.

EKONOMIA SAILBURUORDETZA

Legealdi honetan, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari atxiki zaio Ekonomia Sailburuordetza, eginkizun hauek dituela: Jaurlaritzaren politika ekonomikoaren planifikazioa; ikerketa, azterlanak eta metodo ekonomikoak; koiuntura eta aurreikuspen ekonomikoak; estatistika, eta Europako Suspertze eta Erresilientzia Funtzen koordinazioa eta jarraipena.

2025eko egungo testuingu ekonomikoan eta 2026rako aurreikuspenetan, non adierazle makroekonomikoen egonkortasuna eta neurrizko baikortasuna erakusten baitute, sailburuordetza honen helburua da Sailari eta gizarte-eragileei laguntzea, datuen analisitik eta ebidentziatik abiatuta, eta, erabakiak hartzeko orduan, hausnarketa-esparru bat eskaintzea, politika publikoak hobeto ezartzeko, eta, hartara, Euskadin produktibitatea eta kalitatezko enplegua sustatzeko.

Politika ekonomikoak aztertzea Sail honen eginkizunetako bat da, koherentzia behar baita plangintza estrategikoaren, aurrekontu-politiken eta politika ekonomikoen artean.

Plangintza estrategikoak bat etorri behar du Jaurlaritzaren lehentasunezko ardatzekin, eta, planetan, gizarte-eraldaketa ekarriko duten politikak jaso behar dira.

Jakin behar dugu nola eragiten duten politika publikoek gizartean, zenbateraino ezartzen diren proposamenak eta nola eragiten duten gizartean ikuspegi ekonomiko eta sozialetik, hain zuzen ere politikak horiek eraginkorragoak eta efizienteagoak izan daitezen herritarren mesedetan.

Era berean, sailburuordetza honen ardurak da egiturazkoak ez diren Europako funtsei dagokienez Jaurlaritzako sail guztien kudeaketa koordinatzea, horien jarraipen eta kontrol egokia ziurtatuz.

EKONOMIA ZUZENDARITZA

También desde esta Dirección se elabora el programa anual de publicaciones del Departamento en colaboración con el Servicio Central de Publicaciones.

ÓRGANO DE EVALUACIÓN DE LAS POLÍTICAS DE EMPLEO E INCLUSIÓN

El Órgano de evaluación de las políticas de empleo e inclusión (Besaldi) realizará su primera evaluación e informe general bienal sobre el Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión, así como su segundo ciclo de encuentros abiertos a cualquier persona interesada. Su labor de fomento se canaliza hacia la Euskal Herriko Unibertsitatea y la Fundación Eguía Careaga, para proyectos de construcción de conocimiento en relación con la evaluación de las políticas de empleo e inclusión.

VICECONSEJERÍA DE ECONOMÍA

A la Viceconsejería de Economía, incorporada en esta legislatura al Departamento de Economía, Trabajo y Empleo, le corresponden las funciones de planificación de la política económica del Gobierno, investigación, estudios, métodos económicos, coyuntura y previsiones económicas, estadística, así como la coordinación y seguimiento de los fondos europeos de recuperación y resiliencia.

En el entorno económico actual de 2025 y previsible para 2026 de estabilidad y moderado optimismo en cuanto a los indicadores macroeconómicos, esta Viceconsejería tiene como objetivo en ayudar al Departamento como a los agentes sociales, desde el análisis y la evidencia de los datos para que en la toma de decisiones, se pueda tener un marco de reflexión para la mejor implementación de las políticas públicas, con el objetivo de impulsar la productividad y el empleo de calidad en Euskadi.

El análisis de las políticas económicas es una de las funciones de este Departamento, ya que tiene que haber una coherencia entre la planificación estratégica, las políticas presupuestarias y las políticas económicas.

La planificación estratégica debe responder a los ejes prioritarios del gobierno, y sus planes deberían contemplar políticas que generen un efecto transformador en la sociedad.

Tenemos que conocer como impactan las políticas públicas en la sociedad, el grado de implementación de las propuestas, el impacto que produce en la sociedad desde un punto de vista económico y social, para que estas sean más eficaces y eficientes en favor de la ciudadanía.

Asimismo, esta Viceconsejería es responsable de coordinar la gestión de todos los Departamentos del Gobierno respecto a los fondos europeos no estructurales, asegurando su adecuado seguimiento y control.

DIRECCIÓN DE ECONOMÍA

Ekonomia Zuzendaritzak, sailburuordetza honi atxikita, EAEko sistema sozioekonomikoa aztertzen eta monitorizatzen du, maila globalean eta lurralde-mailan, eta sistema horren jarduna inguruko erreferentzia geografiko nagusien jardunarekin alderatzen du. Arlo horretan, nabarmendu behar da euskal ekonomiari buruzko hainbat txosten egiten direla aldizka: haietan, adierazle ekonomiko nagusiak berrikusi, eta egoera ekonomikoari buruzko informazio sintetikoa argitaratzen da, astero (Astekonomia), hilero (koiuntura klik batean eta euskal ekonomiaren termometroa), hiru hilean behin (egoerari buruzko hiru hilean behingo txostenak), bai eta urtero ere (urteko txostena). Era berean, Zuzendaritzak datu-base ekonomikoak mantentzen ditu, C-interreg eta Ikerbide, bai alderdi koiunturalean, bai egiturazkoan; izan ere, input pribilegiatuak dira EAEko errealitate ekonomikoa aztertzeko.

Halaber, politika publikoei, gizarte-eragileei eta, oro har, gizarteari zorroztasun zientifikoa emateko, monografikoak egiten dira, Ekonomia aldizkariaren bidez, eta Ikerketak izeneko seriea eginez eta editatuz. 2026. urtean, gainera, eragin-azterlanak egin nahi ditugu, ardatz hartuta kalitatezko enplegua eta Enpleguaren Euskal Legearen garapenari sostengua ematea.

Gainera, Ekonomia Zuzendaritzari dagokio Sailarekin zuzenean lotutako estatistika-eragiketak egitea.

Garapen horretarako, funtsezkoa da ikerketa- eta ikasketa-munduko eragileekin harremanetan egotea eta euskal ekonomiari buruzko informazioa eta analisia hobetzeko lan egingo duen lankidetzaren ingurune bat garatzea.

PLANGINTZA ETA EGITURAZKOAK EZ DIREN FUNTSEN ZUZENDARITZA

Plangintza eta Egiturazkoak Ez diren Funtsen Zuzendaritzak egiturazko politiken eremuan parte hartzen du, Gobernuaren lehenetsuneko ardatzei erantzunez eta politikak aztertuz, gizartearen eragin eraldatzailea izan dezaten.

Hori dela eta, euskal ekonomiarentzat interes estrategikoa duten proiektuei buruzko txostenak aztertu eta egingo ditu, haien inbertsio-mailagatik eta enpleguaren kalitateagatik, eta eragina ebaluatzea ahalbidetuko duten metodologiak definituko ditu. Bestek beste, adierazleen indize bat garatzen jarraituko da, gizarte-eragileek eta administrazioak politika publikoetan erabili ahal izateko. Ildo beretik, Jaurkitzearen plangintza estrategiko osoan enplegua aztertzeko metodologia bat landuko da, enplegu-legea betetzea errazteko.

Zuzendaritza hau Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa koordinatzeaz eta haren jarraipena egiteaz arduratzen da, hiru helburu betetzeko: sailei laguntzea ahalik eta gehien aprobetxatzen dituzten jasoetako funtsak; jarraipenaren bidez, baliozko informazioa sortzea, funtsen berri izateko eta euskal gizartearen nola eragiten duten jakiteko, eta funts horien bilakaeraren berri ematea gizarteari, gizarte-eragileei eta erakundeei.

LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILBURUORDETZA

La Dirección de Economía adscrita a esta Viceconsejería analiza y monitoriza el sistema socioeconómico vasco a nivel global y territorial y compara su desempeño con el de los principales entornos geográficos de referencia. En este ámbito cabe destacar la elaboración de diversos informes periódicos sobre la economía vasca: se revisan los principales indicadores económicos y se publica información sintética sobre la situación económica con carácter semanal (Astekonomia), con carácter mensual (Coyuntura en un clic y el termómetro de la economía vasca), con cadencia trimestral (Informes trimestrales de coyuntura) y, también, anualmente (Informe anual). Asimismo, la Dirección mantiene las bases de datos económicos, C-interreg e Ikerbide, tanto en su parte coyuntural como estructural, que sirven como input privilegiado para el análisis de la realidad económica vasca.

Asimismo, con el objetivo de dotar de rigor científico tanto a las políticas públicas como a los agentes sociales y la sociedad en general, se elaboran monográficos con la revista Ekonomia y a través de la elaboración y edición de la serie Ikerketak. Este año 2026 nos planteamos además realizar estudios de impacto que se centrarán en el empleo de calidad y el apoyo al desarrollo de la Ley vasca de empleo.

Además a la Dirección de Economía le corresponde realizar las operaciones estadísticas directamente relacionadas con el Departamento.

Para todo este desarrollo, es fundamental la relación con los agentes del mundo investigador y académico y desarrollar un entorno de colaboración que trabaje para mejorar la información y análisis de la economía vasca.

DIRECCIÓN DE PLANIFICACIÓN Y FONDOS NO ESTRUCTURALES

La Dirección de Planificación y Fondos no estructurales participa en el ámbito de las políticas estructurales respondiendo a los ejes prioritarios del Gobierno, y analizando las políticas para que generen un efecto transformador en la sociedad.

Por ello, analizará y emitirá informes sobre proyectos de interés estratégico para la economía vasca por su nivel de inversiones y calidad del empleo, definiendo metodologías que permitan evaluar el impacto. Entre otros se continuará con el desarrollo de un índice de indicadores, que sirvan para que los Agentes Sociales y la administración lo puedan utilizar en las políticas públicas. También en este mismo sentido, se trabajará en una metodología de análisis del empleo en el conjunto de la planificación estratégica del Gobierno, para facilitar el cumplimiento de la ley de empleo.

Esta dirección se encarga de la coordinación y seguimiento del Mecanismo de Resiliencia y Recuperación, con un triple objetivo: Ayudar a los departamentos a que se aprovechen al máximo los fondos recibidos, generar información de valor con el seguimiento que permita tener conocimiento de los fondos y como están impactando en la sociedad vasca, y comunicar a la Sociedad, los agentes sociales y organismos de la evolución de los mismos.

VICECONSEJERÍA DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

Euskadi Kalitatezko enpleguak sortuko dituzten enpresa-proiektu sendoak garatzeko aukera emango duten lan-harremanak behar ditu, Enpleguaren Euskal Legeak ezartzen duen harira (2. artikulua), esaten baitu enplegu duina lan-jarduera bat irisgarritasun unibertsaleko baldintzetan egiteko aukera ematen duena dela, familia-kontziliazioarekin bateragarria den bidezko diru-sarrera baten truke; segurtasuna ematen duena lantokian, gizarte-babesa, garapen pertsonalerako eta partaidetzarako aukerak eta aukera-berdintasuna; eta gizarteratzearen alde egiten duena.

Horregatik, lan-politikan, helburu nagusia da, elkarrizketa sozialetik eta ekonomia- eta lan-eragileekin lortutako akordiotik abiatuta, Sailaren baliabide guztiak enpleguaren kalitatea hobetzearen zerbitzura jartzea, laneko arriskuen prebentzio-politika integral batetik hasita, kalitatezko enpleguaren ezinbesteko baldintza gisa. 2026ko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia onartzea mugari bat da, beste eragile sozial batzuekin batera landua eta Eusko Legebiltzarrerara helarazia, lan egiten dutenen osasuna babesteko paradigma aldatzen duen neurrian, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategian ezarritako lehen baldintza betez, kalitatezko enplegura bideratua, eta 2026an zehar bere ekintzak hedatzen jarraituko du, tarteko ebaluaziotik eratorritako ondorioak barne, 2025ean aurkeztu zen.

Enpleguaren kalitatea hobetzen laguntzen duten lan-harreman indartsuek hiru zutabetan oinarritu behar dute, eta horietako lehena legea betetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko Ikuskaritzaren funtsezko eginkizunarekin.

2026an zehar, Kudeaketa Plana berria ezarriko da, zerbitzu publiko hori indartzeko jarraitzeko, langileen eskubideen bermatzaile gisa, eta gardentasunaren eta gizarte-eragileen parte-hartzearen aldeko apustuari eutsiko zaio, ikuskapen-lanen emaitzak zabalduz eta Euskadiko Laneko Ikuskaritzaren Aholku Batzordea Gizarte Elkarrizketarako Mahaiaren barruan aldizka deituz.

Gainera, aurten kontuan hartu behar da ekainaren 17ko 512/2025 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskaritzaren eginkizunak zabaldu egin direla, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzeritarren norberaren edo besteren konturako hasierako lan-baimenen arloko arauak behar bezala betetzen direla kontrolatzeko.

Lan-arloko legeria betetzeko ildo beretik, Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak, Euskal Lan Agintaritza den aldetik, enpresetako lan-baldintzak lan-arloko legeriarekin bat etor daitezzen zainduko du, administrazioaren eta administratuen arteko harremanetan segurtasun juridikoa bermatuz, lan-espedienteak izapidetuz, hala nola enplegu-erregulazioaren espedienteak eta lan-arloko zehapen-prozedurak, arretaz eta zorrotasunez, eta bere kargura dituen administrazio-erregistroak eraginkortasunez kudeatuz, eta administrazio-kudeaketa hobetzen jarraituko du herritarrekiko eta enpresekiko komunikazioan, administrazio elektronikoaren bidez.

Euskadi necesita unas relaciones laborales que permitan el desarrollo de proyectos empresariales robustos que generen empleos de calidad, en el sentido que establece la Ley Vasca de Empleo (artículo 2) cuando dice que el empleo digno es aquel que brinda la oportunidad de realizar una actividad laboral en condiciones de accesibilidad universal a cambio de un ingreso justo y compatible con la conciliación familiar; que ofrece seguridad en el lugar de trabajo, protección social, perspectivas de desarrollo personal y de participación e igualdad de oportunidades; y que favorece la integración social.

Por ello, en política de trabajo, el objetivo general es, desde el diálogo social y el acuerdo con los agentes económicos y laborales, poner todos los recursos del Departamento al servicio de la mejora de la calidad en el empleo, empezando por una política de prevención de riesgos laborales integral como condición indispensable del empleo de calidad. La aprobación de la Estrategia Vasca de Seguridad y Salud Laboral 2026, trabajada entre otros con los agentes sociales y trasladada al Parlamento Vasco, supone un hito, en la medida en que cambia el paradigma de la protección de la salud de quienes trabajan, cumpliendo el primero de los requisitos establecidos en la Estrategia Vasca de Empleo 2030, orientada al empleo de calidad, y seguirá desplegando sus acciones a lo largo del 2026, incluyendo las conclusiones derivadas de la evaluación intermedia, que se presentó en el 2025.

Unas relaciones laborales fuertes que coadyuven a la mejora de la calidad del empleo han de basarse en tres pilares, de los cuales, el primero de ellos es el cumplimiento legislativo, con el papel fundamental de la Inspección de Trabajo del País Vasco.

Durante el 2026, se procederá a la implementación de su nuevo Plan de Gestión, para continuar con el reforzamiento de este servicio público, como garante de los derechos de las personas trabajadoras, y manteniendo la apuesta por la transparencia y la participación de los agentes sociales, a través de la divulgación del resultado de las labores inspectoras y de la convocatoria periódica de la Comisión Asesora de la Inspección de Trabajo de Euskadi en el seno de la Mesa de Diálogo Social.

Además durante este año hay que tener en cuenta que a través del Real decreto 512/2025, de 17 de junio, se han ampliado las funciones de la Inspección de Trabajo del País Vasco para el control del adecuado cumplimiento de las normas del orden social en materia de autorizaciones iniciales de trabajo por cuenta propia o ajena de las personas extranjeras cuya relación laboral se desarrolle en el País Vasco.

En el mismo sentido del cumplimiento de la legislación laboral, la Dirección de Trabajo y Seguridad Social, como Autoridad Laboral Vasca, tutelarà que las condiciones de trabajo en las empresas sean acordes a la legislación en materia laboral, garantizando la seguridad jurídica en las relaciones Administración-administrados/as, tramitando los distintos expedientes laborales, como los Expedientes de Regulación de Empleo y los procedimientos sancionadores en materia laboral, con diligencia y rigor, y gestionando de manera eficiente los Registros administrativos que tiene a su cargo, y proseguirá con la mejora en la gestión administrativa en la comunicación con la ciudadanía y las empresas a través de la administración electrónica.

Gainera, lan-legeria betearaztearen arloan, Euskal Autonomia Erkidegoan norberaren edo besteren kontura lan egiten duten atzeritaren hasierako lan-baimenak jasoko dira, baimen horiek 2025eko ekainean transferitu baitziren.

Lan-harremanak indartzeko bigarren zutabea elkarriketa eta akordioa da, eta, zehazki, enpresa-erakundeen eta sindikatuen arteko bi aldeko elkarriketa. Horretarako, Laneko Zuzendaritzak negoziazioaren eta akordioaren aldeko agertokia sustatuko du, enpresa-proiektuak indartzea eta garatzea eta langileen bizi- eta lan-baldintzak hobetzea ahalbidetuko duten hitzarmen kolektiboak lortzeko. Ildo horretan, hitzarmen kolektiboak negoziatzeko eta sinatzeko legitimatuta dauden alderdien borondatea erabat errespetatuz, hitzarmen kolektibo eguneratuek estalitako langileen kopurua handitzen lagundu behar da, bai eta zeharkako gaiei buruzko lanbide arteko akordioak lortzen ere, lan-baldintza orokorrak nabarmen hobetzea ahalbidetuko dutenak, hala nola hitzarmeneko gutxieneko soldata edo laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea, besteak beste. Horretarako, negoziazio kolektiboaren protagonistak diren gizarte-eragileak indartzeko aukera emango duten politikak eta jarduerak ezarri behar dira, eta erabaki arrazionalak hartzea ahalbidetuko dien informazioa eta azterketak eskaini behar zaizkie eragile horiei.

Eta negoziazio kolektibotik harago, Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetzak Gizarte Elkarriketarako Mahaia koordinatzeko ardura ere badu, Jaurilaritzaren eta gizarte- eta lan-arloko politika publikoen gizarte-eragileen arteko ituntze-foro nagusia den aldetik. Elkarriketa Sozialaren Mahaia oinarritzeko tresna bihurtu da politika publikoak diseinatu eta abian jartzeko, bereziki enplegu-politikak; izan ere, Enpleguaren Euskal Legeak lidergo eta koherentzia instituzionaleko enplegu-politika publikoen gobernantza ematen du, gizarte-eragileekin protagonismoa partekatzen du Elkarriketa Sozialaren Mahaiaren bidez, eta elkarriketa sozialak enplegu-politikaren definizioan duen protagonismoa indartzen du, Elkarriketa Sozialaren Mahaia gobernantzaren ardatzetako batean kokatuz.

Horretarako, 2026ko ekitaldian partida espezifikokoak aurreikusi dira Gizarte Elkarriketarako Mahaiarentzako laguntza teknikoak hobetzeko, bere lana erraztasun eta eraginkortasun handiagoz egin ahal izan dezan. Gainera, helburu nagusia Parte-hartze Institutuzionalari buruzko Lege Aurreproiektua onartzea izango da, Jaurilaritzak legegintzaldi honetarako hartutako konpromisoa, sindikatuen eta enpresa-erakundeen parte-hartzearen esparru juridikoa finkatuko duena, erakunde horiek gure gizartean duten garrantzia eta garapen ekonomiko eta sozialari eta herritarren ongizateari egiten dioten ekarpena aintzat hartzen duena.

Además se incluirán en materia de ejecución de la legislación laboral, las autorizaciones iniciales de trabajo por cuenta propio o ajena de las personas extranjeras cuya relación laboral se desarrolle en el País Vasco, que fueron transferidas en junio del 2025.

El segundo pilar del fortalecimiento de las relaciones laborales es el diálogo y el acuerdo y, en concreto, el diálogo bipartito entre organizaciones empresariales y sindicales. Para ello, desde la Dirección de Trabajo se fomentará un escenario favorable a la negociación y al acuerdo para lograr convenios colectivos que permitan el fortalecimiento y desarrollo de proyectos empresariales y la mejora de las condiciones de vida y trabajo de las personas trabajadoras. En este sentido, ha de favorecerse, con pleno respeto a la voluntad de las partes legitimadas para la negociación y firma de los distintos convenios colectivos, el aumento de las personas trabajadoras cubiertas por convenios colectivos actualizados, así como alcanzar Acuerdos Interprofesionales sobre materias transversales, que permitan una mejora sustancial de las condiciones de trabajo generales, como pueden ser el salario mínimo de convenio o la mejora de la seguridad y salud en el trabajo, entre otros. A tal fin, se deben implementar políticas y actuaciones que permitan reforzar a los agentes sociales, protagonistas de la negociación colectiva, y ofrecer a los mismos información y análisis que les permitan la toma de decisiones racionales.

